

Xenpelarren jaiotz

ondoko 150 urteak

bete ondoren

Gure lekuko ahantziak

Egia esan, eta alde askotatik batera, Xenpelarren ahotsa ez da alferrik entzun, eta isiltasunean iraungi. Horra hor, ehun urte beranduago, han hemenka zabaldurik, gazteek antolatu dituzten bertsolari eskola berriak. Ozta-ozta 35 urte urri txirotasunean bizitu ondoren, nekez espero zezakeen Xenpelarrekin honenbestearainoko oihartzunik. Hau ere egia da.

Xenpelar, ordea, bere garaian lortu zuen arrakasta harriarriaren aldetik, bi karlistadaren arteko giroaren lekuko aparta da; hizkuntz balioak aparte utzita ere, ondoko urteetan beste bertsolariak gure herri xehearen lekuko bikainak izan diren bezalaxe.

Hil arte «jornalero»

Hots, askotan harritu izan nau ni, eta gaur ere harritzen, gure artean oso modan dagoen joera harriarri batek: alegia, Nikaraguako «campesino» en arazoak eta kondaira bihotzean iltzaturik daramatzaten batzuk, geronen baserritarrez, eta beren bozeramale jatorrak izan diren bertsolarietaz, guztiz hotz agertzea. Sandinistek gure baserritarren gorabeherez gehiago balekete, eta areago kezkatuko balira, Nikaraguar baserritar arazoez baino, zer pentsatu behar genuke? Sandinisten aldeko

neure jarrera pertsonala berriro aitortuz ere, horra hor galdera bat.

Areago harritzen nau joera bitxi (eta erderomano ere bai oso maiz) horrek, halere, Xenpelarren kasoan; hau baserriko seme izanik, kaletartu egin baitzen. Beste bertsolari batzu beren garaiko baserritarren lekuko izan badira ere, zabalagoa da Xenpelarren mezua; gure errederiarra gazte denboran mendian «oteketan» ibili ondoren, hil arte egon baitzen gero fabrikari «jornalero».

Baserritar hutsaren lekuko bizia

Baina Xenpelarren sinbolikotasuna oraino ere handigoda; «Senperelarre» baserria, azkeneko urteotan hustu eta zaharrakatu baino lehenago, hara joandako lau erdaldu familiak zirela medio, arrostu egin baitzen, eta euskararentzat mutu bihurtu.

Xenpelarrekin, beraz, «Aizate»ko festa-bilera zatatsua azaltzen dituenan, gainbehera hasia zen Euskal Herri baserritar hutsaren lekuko bizi agertzen zaigu. Gauza bertsua garai hartako erromeriak aipu dituenan, ia-ia gaurko diskotekaren pareko paratzen dizkigunean:

Aurten —eta zehazkiago orain dela bi hilabete— bete dira Xenpelarren jaiotz ondoko 150 urteak. Prantxixku Petriarena bertsolari famatua, lehenengo karlistada betean jaio zen; hain zuzen ere, karlistek kontrolatzen zuten gipuzkoar eskualdearen mugan bertan zegoen «Senperelarre» baserrian. Donostia eta Errenderia herriak, artean, liberalen mendean zeuden. Eta Xenpelarrekin, beraz, beste hamaika euskaldunek bezala, jaio ordukoxe entzun zituen oinaze garrasiak, gerra hotsak eta españatar militarren oinkadak.

«Neskatxe eder balientia artu nai baldin badezu, etorri zaitez Oiartzun-a ta antxen billatuko dezu... kolore zuri gorri ederra franko badezu; San Estebanez da erromeriya, ikusi nai badituzu».

Edo-ta beste ohar honetan:

«beti festara begiyak... nun dira erromeriyak?»

Baina industri langilea izan zen Xenpelar:

«urte oietan jornaleruak ibilli degun gustua».

Errenderiako «fabrika aundiyan» urte luzetan barrera belantziaren «plugastel» izeneko belaki lodiarren prestakuntzan ehule gisa lanegin baitzuen. Baita krisia ezagutu ere:

«orain jornalak bajatu askori zaigu gertatu»

Edo oraindik ere zehazkiago:

«lengo diruak ariyo nondinai zarpa jariyo»...

... «len ogei, orain zortzi»...

Xenpelarrekin babide zekien irakurtzen; ez, ordea, idazten. Euskaldun haien jakintzaren zabalera hortxe ageri da; baita esaera honetan ere:

«Txinako beltzetara obe dezu jua»

(Egia esan, aski da Louis J. Calvet soziolinguista irakurtzea, garai bertsuan eta jende eskolatuagoen artean,

Frantziyan ere «Arjeliako beltzak» aipatzen zirela ikasteko...)

Kaletarturik ere, liberalen kontrako «oponiyua» erakusten digu Xenpelarrekin; eta honetan euskal nekazarien bozeramale agertzen zaigu:

«Liberalak diyote egoteko umill, lengo lege zarrikan ez tutelala nai ill; gu tonuak bagia, oiek beti abill».

Eta, elizaren eraginez, erabat eskuindar eta elizkoi:

«lengo legerikan nai ez pazuten galdu, jesuitak zertako kanpora bialdu?».

Baina 1868ko gertakarien aurrean, Espainiako erregearen ofizialaren alde agertzen da; eta honetan «Karlitos Setimo» prestatzen hasia zen karlista mogimendutik at:

«Erregina emendik bialdu ta sarri asunto bat digute askorentzat jarri».

Karlismoarekiko uzkurta sun hori, Xenpelarren bakezaletasun borobilean agertzen da garbikiaren:

«Jaunaren justizian obe da umildu; gerrari laga eta pakiari eldu».

Badirudi, hitz batez, zazpi urtetako lehenengo karlistadak oroitzapen txarra utzi zuela gure herrian; ez baita batere harritzekoa:

«Ez naiz ni gerraren zale, baizik pakiaren alde».

Gure arbasoek erlijioan finkatzen bide zuten bakezale-tasun hori, bai. Baina fede gartsua baino, presio soziala agertzen da Xepelarren bertsoetan:

«meza luzian egondu gera eziñ pasarik denbora»

Eta urtean behin konfesatu beharraz, zeharbidez bada ere, honetara mintzo baita:

«egunez askok ikusten gaitu, guazen illunabarrian!»...

Frantsesak begi okerretik nonbait

Garai hartako euskaldunen artean herri kontzientzia garbirik ez zegoela agertzen da nabarmen Xepelarren bertsoetan. Irun-Altsasua burnibidearen eraikialdian (1858/1864) etorritako frantsesei buruz, honetara mintzo da:

«danak emen ditugu oraingo aldiari burnizko bide traste oien aitzakian»

(Kontutan har, bidenabar, «burnizko bide» hori...)

1808 gertaeren oroitzapena bizirik zegoen gure jende xehearengan:

«oiek ateratzea gure erreñuti kosta bear zaigula uste det larruti».

Arrotz kutsu horrek frantsesak iristen ditu; baina ez españolak:

«jornalik aundienak frantsesak dauzkate, nunbait español danok tontotzat gauzkate»

Gainera, Xepelarren ustez beti, frantsesak «eztira elizara juaten», han «mozkortzeko toki txarra delako». Eta alfer galantak dira:

«berak pikoarekiñ bafiñere ez asi»...

Juan Petirena Rekondo «Xepelar»



Besteren ahoz bada ere, hortxe dago haiekiko gorrotoa:

«frantsesa baldin bada ito dedilla!».

Frantsesen jazkera bera bitxi bide zaio:

«Ezagunak dirade guziak trajean: lebita ta erlojua beti gorputzean, pantaloi lasaiak ta bizarra okotzean, beñere etzaie falta pipa bat ortzean».

Eta gauza bera hizkuntza-ren aldetik:

«oien lengujia ona da berentzat»

Frantses emakumei buruz, askoz beranduago jasotako «leunki» uste berbera:

«emakume sobatuak frantsesakiñ oratuak»

Euskaltzale baina «irurac bat»

Xepelar euskaltzale da; baina foralista eta «irurac bat» delakoaren mailakoa:

«Araba ta Bizkaiak legezko indarrak, Gipuzkoan ez gaude laguntzalle txarrak; ona iru probentzi kantabrietarrak, sostenitu ditzagun lengo fuero zarrak».

Edo-ta bertso famatu horretan:

«Gu gera iru probintzi, lengo legerik ez utzi; oieri firme eutsi, naiz anka bana autsi; jaiko dira berriyak, gu gera euskal erriyak!»

Xepelarren inguruan, eta beste hamaika bertsolarirenean, A. Zabalak egin duen lan gaitza hor dago: hizkuntza harrobi harrigarri, soziologi-erakuskari bikain, ikertzaile gazteen zai. Sekulako hil ziren euskaldun zapaldu eta ukatu haien mezua hor dugu, zanpatutako herrien mendekua egin nahi duten aberkideen zai.

Aditu nahi duenak, entzun beza.